

BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Enpresak gure bezeroekin izango duen harremana oso garrantzitsua izango da, pertsonala izango da. Harremana pertsonala izango da zeren eta denda bat dugunez, gure bezeroei fisikoki salduko dizkiegu gure produktuak.

Beste aldetik, harreman automatizatua eskaintzen dugu. Web-orri bat daukagu, gure bezeroek produktuak erosi ahal izango dituzte, eta Correos-en bitartez bidaliko ditugu. Web orrian ikusiko da zer den DUM; hau da, gure enpresari buruzko oinarritzko informazioa, gure helburuak, produktuak eta produktuei buruzko aholkuak (informazio gehigarria edo berezia).

Azkenik, bezeroak gurekin lotuta mantentzeko egingo ditugun ekintzak hauek izango dira:

- Gure erlojuak ikusteko aukera izatea sare sozialetan (Instagram, Facebook, Twitter)
- Denda fisikoan, erakusmahai bat dago gure erlojuak probatzeko.
- Zure erlojuaren pertsonalizatzeko aukera (dohainik)
- Familia-erosketa bat egiten bada (gutxienez 4 pertsonakoa), ehuneko 50eko deskontua egingo da.
- Azaroaren 14an Diabetesaren eguna denez, egun horretan jardunaldi bereziak egingo dira gure dendetan, gaixotasunaren inguruko txarлак emanaz.
- Bezeroentzako salmenta ondorengo zerbitzu berezia egongo da, aparatua programatzen arazoak baldin badituzte haren programazioarekin laguntzeko. Zerbitzu hori, fisikoa (dendan), telefonoz edota txat baten bidez (web-orria) emateko aukera egongo da.

